



LIZARTZAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiarengatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Lizartzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena** (Diputatu Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 16an behin betiko onartua, eta GAOn 2007ko otsailaren 1an argitaratua).

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.



2.- 011 zona katastralaren mugapena aldatzen da.

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano

II. ERANSKINA

Zona katastralaren plano